Nace en Zugarramurdi, Navarra. Sus primeros estudios musicales los realiza con F. Lazkano en Hondarribia, terminando los cursos de armonía con Lorenzo Ondarra. Desde los diecinueve años su afición musical se centra en la dirección de coros y el canto. Juan Eraso en Pamplona y Ramón Regidor en Madrid son sus profesores. Siendo componente del Coro Nacional, conoce a directores como Odón Alonso, José María Franco o Teo Alcántara, entre otros. Ha cantado y aprendido con Juan Eraso y José Luis Ansorena.

Funda la Coral Nora Abesbatza de Sangüesa (1968-2011), y también funda y dirige actualmente el Coro San Fermín Abesbatza (1976) y el Coro San Fermín Ikastolako Abesbatza (2005).

Con estas tres agrupaciones corales ha ofrecido numerosos conciertos en Navarra y en el resto del estado. Como miembro de Pueri Cantores, acude a Roma, Bruselas, París, Lecco y Salamanca. Como miembro de Europa Cantat, ha estado en Lucerna (Suiza), Linz (Austria) y Barcelona.

Fue miembro del Consejo Navarro de la Cultura (1987-1991); ha sido Presidente de la Federación Navarra de Coros; es miembro del jurado de Euskal Kantu Txapelketea, ha sido profesor de Historia de la Música en San Fermín Ikastola. Como compositor ha sido premiado en varios concursos. Ha escrito textos propios, y ha usado otros de autores importantes: Xalbador, P. Perurena, X. Lete, J. Artze, D. Iribarren, G. A. Bécquer, entre otros.

Zugarramurdin (Nafarroa) jaio zen. Lehen musika ikasketak F. Lazkanorekin Hondarribian hasi zituen, eta harmonia ikasketak L. Ondarrarekin amaitu zituen. Hemeretzi urte zituenetik, koruen zuzendaritzarako eta kanturako zaletasuna azaldu zuen. J. Eraso, Iruñean, eta R. Regidor, Madrilen, izan zituen irakasle. Koru Nazionalean parte hartu izanak O. Alonso, J.M. Franco edo T. Alcántara zuzendariak ezagutzeko aukera eman zion; J. Eraso eta J.L. Ansorenarekin ere abestu izan zuen.

Honako hiru abesbatza hauek sortu zituen: Zangozako Nora abesbatza (1968an), San Fermin abesbatza (1976an) eta San Fermin Ikastolako abesbatza (2005ean).

Hiru abesbatza horiekin kontzertu ugari eskaini izan zituen, Nafarroan ez ezik, estatu osoan ere. Pueri Cantores-eko edo Europa Cantat-eko kide bezala, Europan zehar topaguneetan parte hartu zuen. Bere zuzendaritzapean bederatzi disko argitaratu dira.

Nafarroako Kultura Kontseiluko kide izan zen (1987-91); Nafarroako Abesbatzen Federazioko Lehendakaria; Euskal Kantu Txapelketako ohiko epailea da, eta San Fermin Ikastolan Musikaren Historiako irakaslea da. Izendapen ugari eta konposizio lehiaketa askotan sariak jaso izan ditu. Testu propioak idatzi ditu eta beste poeten testuak ere erabili ditu, adibidez: Xalbador, P. Perurena, X. Lete, J. Artze, D. Iribarren, edo G. A. Bécquer.

## IRIONDO, Sabina

Nace en Mondragón (Gipuzkoa) el año 1926. Realizó sus estudios musicales en el Conservatorio de San Sebastián, finalizando la carrera de piano en 1957. El año 1945 ingresa en la congregación de las Hermanas Mercedarias de la Caridad, pasando a residir, después de su profesión el año 1947, primero en Zumárraga (Noviciado) y más adelante en Madrid (Colegio), Bilbao (Clínica), Oiartzun (Colegio y Residencia de ancianos), Eibar (Colegio) y Mondragón (Colegio y Hospital).

Desplegó en todos sus destinos una intensa actividad como organista y profesora de música de las novicias y alumnas. Como compositora es autora de un centenar de obras pensadas para la liturgia y la oración, tanto para coro unisonal como para coro de voces blancas.

Falleció en Mondragón en 1975, a la temprana edad de cuarenta y ocho años.

Arrasaten jaio zen 1926an. Musika ikasketak Donostiako Kontserbatorioan egin zituen, eta piano karrera 1957an amaitu zuen. 1945ean Karitatearen Mesedeetako Ahizpen kongregazioan sartu zen, eta 1947an botoak egin ostean, Zumarragan (nobiziotza), Madrilen (ikastetxean), Bilbon (klinikan), Oiartzunen (ikastetxean eta zaharren egoitzan), Eibarren (ikastetxean) eta Arrasaten (ikastetxean eta ospitalean) bizi izan zen.

Bizi izandako leku guztietan, nobizien eta ikasleen musika irakasle eta organista gisa lan egin zuen. Musikagintzari dagokionean, liturgiarako eta otoitz egiteko ehun obra baino gehiago idatzi zituen, ahots bakarreko abesbatzarako ezezik, ahots zurien abesbatzarako ere.

Arrasaten hil zen 1975ean, berrogeita zortzi urte zituela.

## IRURETAGOYENA, Joaquín

Nació en Astigarraga, Gipuzkoa, en 1898. Hizo sus primeros estudios musicales con su padre, organista del pueblo, siendo posteriormente discípulo aventajado de Luis Urteaga. En 1920 ingresó como barítono en el Orfeón Donostiarra, del que llegó a ser subdirector durante el mandato de Secundino Esnaola. Al fallecer en 1929 el maestro Esnaola, Joaquín Iruretagoyena se hizo cargo de la dirección del Orfeón Donostiarra durante un año.

Las obligaciones de su puesto de trabajo, como jefe de una sección de la Diputación de Gipuzkoa, le obligaron a cesar en su actividad musical. En ese momento recibió un cálido homenaje del Orfeón Donostiarra. Aunque se alejara entonces del mundo de la música, continuó componiendo, principalmente música para banda de txistu. Falleció en San Sebastián el año 1958.

1898ko abuztuaren 13an jaio zen Astigarragan (Gipuzkoa). Bere aitarekin, herriko organo-jotzailearekin hasi zituen musika-ikasketak, baina gero Luis Urteagaren ikasle nabarmena izan zen. 1920an Donostiako Orfeoian baritono sartu zen eta, bertako zuzendariorde izateaz gainera, Secundino Esnaola zuzendariarekin aritu zen elkarkidetza apartean. Esnaola maisua zendu zenean, zuzendaritza hartu zuen urtebeterako.

Gipuzkoako Diputazioko sail baten buru izateagatik eta horrek eskatzen zion zuzentzeari eta Juan Gorostidik hartu zuen, hortik aurrera, luzaroko izango zen kargua. Orduan egin zion Donostiako Orfeoiak omenaldi beroa. Geroztik musika-arlo horretatik urrundu zen, txisturako hainbat partitura idatzi bazituen ere. Donostian hil zen 1958. urtean.

## LABANDIBAR, Kontxi

Nace en Oiartzun, (Gipuzkoa), en 1969. Realizó los estudios profesionales de acordeón en el conservatorio de Errenteria Musikal, aprendiendo asimismo el txistu en Oiartzun con el txistulari Juanito Arozena. Es miembro del grupo de txistu Lartaun. Ha realizado sus intentos de composición en el ámbito del txistu.

Oiartzunen (Gipuzkoa) jaio zen 1969an. Akordeoi ikasketa profesionalak Errenteria Musikal kontserbatorioan amaitu zituen, eta txistua Juanito Arozena txistulariarekin Oiartzunen ikasi zuen. Egun, Lartaun txistulari taldeko kidea da. Txisturako Udaberria obra Segurako Udalak antolatutako Fandango (orripeko) eta Ariñ-ariñ txistu-musikaren lehiaketara aurkeztua izan zen.

## LARRAURI, Sofía

Nace en Bilbao en 1961. Realiza estudios generales de música así como los de piano en el Conservatorio Juan Crisóstomo Arriaga de Bilbao y estudios de acordeón en el Conservatorio Superior de Barcelona.

Ha desarrollado su labor profesional como profesora de acompañamiento y piano en el Conservatorio de Barakaldo.

Su obra *Udaberriko jota* resultó ganadora en el Concurso de música para txistu sobre Fandango (orripeko) y Ariñ-ariñ de Segura en el año 1991.

Bilbon jaio zen 1961ean. Oinarrizko musika ikasketak eta pianoko ikasketak Bilboko Juan Krisostomo Arriaga Kontserbatorioan egin zituen, eta akordeoi ikasketak Bartzelonako Goi Kontserbatorioan.

Barakaldoko Kontserbatorioan piano eta akonpainamenduko irakaslea izan da.

1991n Segurako Fandango (orripeko) eta Ariñ-ariñ txisturako konposizio lehiaketa irabazi zuen *Udaberriko jota* lanarekin.

## LORENZO DE REIZÁBAL, Margarita

Nacida en Bilbao, es Titulada Superior en Piano, Composición, Música de Cámara y Dirección de Orquesta, así como Licenciada en Medicina y Cirugía por la UPV. Es Máster en Psicodidáctica por la Universidad del País Vasco y Doctora en Métodos de Investigación y Diagnóstico en Educación.

Fue pianista de la Orquesta Sinfónica de Bilbao (1982-1998). Ha realizado estudios y máster de Dirección de Orquesta en Inglaterra con los maestros R. Saglimbeni, G. Hurst y N. Thompson, así como con J. López Cobos en Madrid, habiendo sido directora asistente en el Teatro Real. Ha sido correpetidora de las temporadas de ópera de Bilbao con más de 25 títulos en su haber.

Pianoan, Konposizioan, Ganbera Musikan eta Orkestra Zuzendaritzan goi mailako tituluduna da, eta karrera amaierako sariak jaso zituen diziplina guztietan. Honez gain Medizinan eta Kirurgian Lizentziatua da, EHUn. Psikodidaktika masterra du, EHUn eta Hezkuntzarako Ikerketa eta Diagnostiko Metodoetan doktorea da.

Bilboko Orkestra Sinfonikoko pianista izan zen 1982 eta 1998 urte bitartean. Ingalaterran ikasketak eta Orkestra Zuzendaritza masterra egin zuen honako irakasleekin, beste batzuen artean: R. Saglimbeni, G. Hurst eta N. Thompson. Madrilen J. López Cobos izan zen bere irakasle eta Antzoki Errealeko zuzendari-laguntzailea izan zen. Bilboko operako denboraldietan errepikaria izan zen, 25 obra baino gehiagotan.

En 1987 obtuvo por oposición la cátedra de Armonía-Composición del Conservatorio Municipal de Leioa. De 1991 a 2016 ha sido Directora Titular de la Joven Orquesta de Leioa, al frente de la cual ha realizado alrededor de 450 conciertos y grabado 7 discos. Desde 2007 es profesora del departamento de Composición y Dirección de Musikene - Centro Superior de Música del País Vasco.

Entres sus publicaciones destaca el libro *En el Podio: manual de dirección de orquesta, coros, bandas y otros conjuntos instrumentales*, traducido a varios idiomas. Como compositora es autora de diversas obras, tanto pedagógicas, como corales e instrumentales.

1987an Leioako Kontserbatorioko Harmonia - Konposizio katedra oposizioz irabazi zuen. 1991tik 2016ra Leioako Orkestra Gazteko Zuzendari Titularra izan zen, eta bertan 450 kontzertu eman zituen eta 7 disko grabatu zituen. 2007tik Musikeneko Konposizio eta Zuzendaritza saileko irakasle titularra da.

Hainbat obra idatzi ditu, adibidez: *En el Podio: manual de dirección de orquesta, coros, bandas y otros conjuntos instrumentales*, hainbat hizkuntzetara itzulia izan dena. Musikagile bezala obra ugari ditu antzerki eta abesbatzarako ez ezik pedagogikoak eta instrumentalak ere.

http://www.mariaeugenialuc.com/

## LUC, María Eugenia

Compositora italo-argentina nacida en 1958. Se formó en la Universidad Nacional y L.I.P.M. (Argentina), Civica Scuola di Milano, École Nationale de Musique y Universidad de París VIII, Universidad del País Vasco. Fue becaria de los Cursos Internacionales en Darmstadt, Siena, Compostela o Granada, bajo la dirección de D. Schnebel, L. de Pablo o B. Ferneyhough.

Su música, premiada por el Instituto I.I.L.A. (Roma), I.M.E.B. (Bourges), I.S.C.M., SGAE, Gobierno Vasco, y Ars Contemporanea, se estrena en auditorios y festivales de Europa, Asia y América siendo interpretada por destacados solistas, orquestas y grupos de cámara.

Ha sido colaboradora de Ricordi Milano y profesora del Conservatorio Superior y Universidad Nacional de Buenos Aires; de la Facultad de BB.AA; del Máster en Artes Escénicas de la UPV (2003-2010) y actualmente en MUSIKENE. Ha sido jurado de concursos internacionales de composición y ha dictado seminarios y conferencias en Alemania, Italia, Argentina y España. En febrero de 2016 recibe la distinción “Melómano de Oro” por su CD monográfico de aire y luz, un ciclo inspirado en el Chi Kung.

Musikako ikasketak honako lekuetan egin zituen: Argentinako Universidad Nacional de Rosario, L.I.P.M. (Buenos Aires - Argentina), Milanoko la Civica Scuola di Musica Contemporanea (Italia), París 8 Unibertsitatea (Frantzia), eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Bekak jaso zituen hainbat erakundetan ikastaroak egiteko, esate baterako, Musikinstitut Darmstadt, Accademia Chigiana di Siena, Manuel de Falla edo Música en Compostela.

Bere lanak sarituak izan dira Italian, Frantzian, Argentinan edo Espainian. Europa, Asia eta Ameriketako jaialdi garrantzitsuetan estreinatu eta interpretatu dituzte bere lanak, bakarlari, zuzendari eta hainbat talde esanguratsuk.

Klaseak eman ditu Buenos Aireseko Goi Mailako Kontserbatorioan, Universidad Nacional de Buenos Airesen, edo Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean, eta mintegi eta hitzaldiak eskaini ditu Berlin, Milan, Salamancan eta Madrilen. Ricordi Milano argitaletxearekin lan egin du jatorrizko eskuidatziak gainbegiratzen eta zuzentzen. Egun MUSIKENE–Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko irakasle da.

En 1997 funda KURAIA (Grupo de Música Contemporánea), de la que es Directora Artística y en 2001 KLEM (Laboratorio de Electroacústica y Multimedia).

KURAIAko sortu zuen 1997an (Bilboko Musika Garaikideko taldea) eta KLEM 2001ean (Laboratorio de Electroacústica y Multimedia) eta Ensemble KURAIAko Zuzendari Artistikoa da.

## MENDIZABAL, Paula

Con fecha de veintisiete de junio de 1870 es bautizada en la parroquia de Santa María de Tolosa la niña Paula Mendizábal Lasquibar. Veinticuatro años más tarde, en 1894, se casa en la misma parroquia.

Fue, al parecer, alumna en Tolosa del compositor Felipe Gorriti. Solamente se conoce una obra de ella, de título *Mantxarik gabe sortuba zera*, escrita para dos voces blancas y acompañamiento de tecla. Se desconoce la fecha de fallecimiento de esta autora.

1870eko ekainaren 27an bataiatu zuten Paula Mendizábal Lasquibar haurra, Tolosako Santa María parrokian. Hogeita lau urte geroago, eliza berean ezkondu zen.

Badirudi Felipe Gorriti konpositorearen ikaslea izan zela. Autore honen obra bakarra ezagutzen da: *Mantxarik gabe sortuba zera*, bi ahots zuri eta teklako akonpainamendurako idatzia. Ez dugu bere heriotza datari buruzko informaziorik.

## OLAIZOLA, Ignacia

Gabriel Olaizola fue su primer profesor de canto. Forma parte como soprano de las entidades Euzko Abesbatza y Eresoinka, donde se estrenó como solista. Permanece con la familia en la región francesa de la Gironde durante la guerra civil, regresando en 1941. Fue alumna de canto de Mª Teresa Hernández, con quien cantó en el Coro Maitea de voces blancas. Formó parte en los años cuarenta de la Compañía Lírica de aficionados formada en San Sebastián, con la que interpretó ópera y zarzuela.

Profesó los votos en la orden de las Hermanas de la Providencia, optando por el nombre religioso de Mª Gabriela. En sus destinos de Salvatierra y Vitoria fue la responsable de preparar un grupo coral para las celebraciones religiosas. Para estos coros ha compuesto una veintena de obras para tres y cuatro voces que han visto la edición el año 2007. Reside en Vitoria-Gasteiz, en la cercanía de los cien años de edad.

Donostian jaio zen 1919an, familia musikazale baten baitan. Bere aita Gabriel Olaizola zen, eta huraxe izan zen bere lehen musika irakaslea. Euzko Abesbatzako eta Eresoinkako sopranoa izan zen, eta bertan abestu zuen bakarlari bezala estreineko aldiz. Gerrate zibilean Frantziako Gironde eskualdean egon zen, 1941ean itzuli zen arte. Mª Teresa Hernándezen ikaslea izan zen eta berarekin ere abestu zuen ahots zurien Maitea Abesbatzan. Donostiako Afizionatuen Konpainia Lirikoan parte hartu zuen 40ko hamarkadan, opera eta zarzuela interpretatuz.

Probidentziako Ahizpen ordenan botoak egin zituen, eta Mª Gabriela eliza-izena hartu zuen handik aurrera. Agurainen eta Vitoria-Gasteizen egon zen eta bi lekuetan erlijio ospakizunetan abesteko abesbatzak antolatu eta zuzendu zituen. Abesbatza hauentzat hiru eta lau ahotsetako hogei obra inguru konposatu zituen, eta 2007an argitaratu ziren. Vitoria-Gasteizen bizi da eta ehun urte inguru ditu.

## OTAÑO, Iñaki

Nace en Donostia el año 1960. Realiza los estudios superiores de txistu en el Conservatorio Superior de Música de San Sebastián, bajo la dirección de Jose Ignazio Ansorena, logrando el Primer Premio de fin de carrera. Estudió posteriormente contrapunto con Jesús Mª Alberdi y composición con Tomás Aragüés y Gotzon Aulestia, realizando asimismo estudios de dirección coral.

Desarrolla su labor profesional en Pasaia Musikal en la especialidad de armonía. Es autor de numerosas obras tanto para txistu como para conjuntos corales.

Donostian jaio zen 1960an. Txistuko goi mailako ikasketak Donostiako Kontserbatorioan egin zituen, José Ignazio Ansorenaren zuzendaritzapean, eta karrera amaierako lehen saria eman zioten. Aurrerago, kontrapuntua Jesús Mª Alberdirekin ikasi zuen eta konposizioa Tomás Aragüés eta Gotzon Aulestiarekin. Koru zuzendaritza ikastaroak ere egin zituen.

Harmoniako klaseak ematen ditu Pasaia Musikalen. Hainbat obra idatzi ditu bai txisturako, bai abesbatzarako.

http://lasmujeresmusicas.blogspot.com.es/2011/04/maria-luisa-ozaita-marques-baracaldo.html

## OZAITA, Mª Luisa

Nace en Baracaldo en 1939. Titulada en piano, clavecín y composición, es alumna del compositor navarro Fernando Remacha. Estudia en el Real Conservatorio de Copenhague con L. Thybo y K.J. Isaksen y en Francia con K. Gilbert, asistiendo a cursos internacionales como los de Darmstadt.

Ha ofrecido numerosos conciertos como clavecinista en distintos países de Europa, América del Norte, Países del Este y del Oriente Próximo.

Ha sido la fundadora y Presidenta de Honor de la *Asociación Mujeres en la Música*, realizando numerosas actividades, conciertos, conferencias y publicaciones, en torno a las aportaciones femeninas a la música. Fue igualmente miembro de número de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

Su obra como compositora ha sido estrenada en prestigiosos festivales. Varias de sus obras han sido publicadas en la editorial Boileau. En 2001 la pianista María José Martín presentó en la Universidad de Cincinnati (EE.UU.) una tesis doctoral sobre su música, titulada *Drama y poesía en la música de María Luisa Ozaita*. Tras donar en vida su archivo y biblioteca musical al archivo ERESBIL, falleció en Madrid el año 2017.

Barakaldon jaio zen 1939an. Pianoan, klabezinean eta konposizioan tituluduna, Fernando Remacha nafar konpositorearekin ikasi zuen. Copenhague-ko Kontserbatorio Errealean ikasi zuen L. Thybo eta K.J. Isaksen-ekin, Frantzian K. Gilbert-ekin, eta nazioarteko hainbat ikastarotan parte hartu izan du, Darmstadt-ekoan, esate baterako.

Europan, Ipar Amerikan, Ekialdeko Herrialdeetan eta Ekialde Hurbileko hainbat herrialdetan kontzertu ugari eskaini izan ditu klabezinista moduan.

*Mujeres en la Música* elkarteko fundatzailea eta Ohorezko Presidentea izan zen, eta emakumeek musikan egindako ekarpenen inguruan jarduera, hitzaldi eta publikazio ugari egin ditu. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kide osoa izan zen.

Konposatzaile gisa, bere obrak jaialdi ospetsu askotan estreinatuak izan dira. Boileau argitaletxean obra ugari kaleratu ditu. 2001ean, María José Martín piano-jotzaileak haren musikari buruzko doktoretza tesia aurkeztu zuen Cincinnatiko (AEB) Unibertsitatean, *Drama y poesía en la música de María Luisa Ozaita* izenburuarekin. 2017ko apirilean zendu zen Mª Luisa.

## PAGOLA, Beltrán

Nace en San Sebastián en 1878. Inicia los estudios musicales en su localidad natal con José Antonio y José Juan Santesteban. A los 17 años termina la carrera de piano en el Conservatorio de Madrid, obteniendo el premio de fin de carrera. De regreso en San Sebastián, forma parte del Sexteto del Gran Casino. Posteriormente ingresa en la Orquesta Sinfónica dirigida por Alfredo Larrocha y en el trío formado por César Figuerido y el propio Larrocha. Hacia 1912 comienza una nueva etapa como pianista, actuando como acompañante de Casals, Cassadó, Thibaud, Quiroga, etc. y de numerosos cantantes. En 1902 le nombran profesor de Armonía y Composición de la Academia de Bellas Artes, asignatura que imparte durante 46 años. En 1928 gana por oposición la cátedra de piano del Conservatorio donostiarra. Escribe un *Tratado práctico de Armonía*.

No se dedicó a la composición hasta bien tarde, iniciando esta faceta hacia los 40 años. Cultivó profundamente el género sinfónico, en el que dejó escritas cuatro sinfonías, y compuso también obras religiosas, obras para coro, composiciones para violín y piano, y para piano. Algunos autores lo han calificado como el sinfonista vasco más importante, "padre de la música sinfónica vasca". Falleció en San Sebastián el año 1950.

Donostian jaio zen 1878an. Bertan hasi zituen musika-ikasketak José Antonio eta José Juan Santestebanekin. 17 urterekin piano-ikasketak amaitu zituen Madrilen, eta karrera bukaerako saria irabazi zuen. Donostiara itzuli zenean, Gran Kasino Seikotean sartu zen. Larrochak zuzentzen zuen Orkestra Sinfonikoan sartu zen ondoren, eta César Figueirido eta Larrocharekin berarekin ere aritu zen hirukotean. 1912 inguruan, hainbat musikari eta abeslariren pianista laguntzaile izan zen, Casals, Cassadó, Thibaud, Quiroga eta abarrekin, esaterako. 1902an aurrerago Udal Akademia izango zen Arte Ederretako Akademian Harmonia eta Konposizioko irakasle izendatu zuten, eta 46 urtez aritu zen ikasgai hori irakasten. 1928an, lehiaketa bitartez Donostiako Kontserbatorioko piano-katedra lortu zuen. Harmoniaren teoria berriak azaltzen zituen tratatu bat egin zuen.

40 urte izan zituen arte ez zen hasi musika sortzen. Genero sinfonikoa jorratu zuen nagusiki, lau sinfonia idatzita. Obra erlijiosoak, korurako lanak, biolin eta pianorako lanak, eta pianorako obrak ere baditu. Zenbait egileren iritziz, euskal sinfonista garrantzitsuena izan da, "euskal musika sinfonikoaren aita". 1950. urtean Donostian hil zen.

## POZUETA, Celestino

Nace en Olazagutía, Navarra, en 1897. Tras iniciar los estudios en su pueblo natal, continuó los de piano, órgano, armonía y composición en Alsasua y Pamplona. Es principalmente autor de composiciones para banda, destacando entre ellas su pieza *Iruñatarra*, que llegó a ser popular en los Sanfermines. También es autor de obras para banda de txistu. Falleció en Urretxu el año 1968.

Olatzagutian (Nafarroa) jaio zen 1897an. Bere jaioterrian hasi zituen musika ikasketak, eta Altsasun eta Iruñean pianoa, organoa, harmonia eta konposizioa ikasten jarraitu zuen. Bandarako obrak idatzi zituen batez ere, eta horietatik *Iruñatarra* obra da aipagarriena, sanferminetan oso ezaguna egin zena. Txisturako obrak idatzi ditu baita ere. Urretxun zendu zen 1968an.

## RUIZ DE GORDOA, José Luis

Nace en Araya (Álava) en 1957. Inicia los estudios musicales en el Conservatorio de Vitoria. Cursa armonía con Aurelio Sagaseta y Pedro de Felipe en el Conservatorio de Pamplona, y contrapunto y fuga con Juan Cordero en Bilbao. Amplía sus estudios en el Conservatorio de Madrid estudiando composición con A. García Abril y Román Alís, así como Dirección de Orquesta con Enrique García Asensio.

Araian (Araban) jaio zen 1957an. Gasteizko Kontserbatorioan egin zituen lehen musika-ikasketak. Iruñekoan, Aurelio Sagaseta eta Pedro de Feliperekin harmonia landu zuen, eta Bilbon, kontrapuntua eta fuga, Juan Corderorekin. Madrilgo Kontserbatorioan konposizioa ikasi zuen A. García Abril eta Román Alísekin, bai eta Orkestra Zuzendaritza ere Enrique García Asensiorekin.

Perfecciona sus conocimientos de composición con Carmelo Bernaola en Vitoria. Ha sido profesor de Armonía y Contrapunto en la Escuela de Música Jesús Guridi de Vitoria.

Como compositor tiene en su haber diversas canciones, piezas para piano, variaciones para piano y orquesta, y otras obras orquestales. Su *Cuarteto para cuerda* obtuvo el Primer Premio en el IV Concurso de Composición de la Caja de Ahorros Municipal de Vitoria, estrenándose en las II Jornadas de Nueva Música Vasca en junio de 1988 en San Sebastián.

Konposizio ikasketak Carmelo Bernaolarekin zabaldu zituen Gasteizen. Bertako Jesús Guridi Musika Eskolako Kontrapuntu eta Harmonia irakaslea izan da.

Abestiak, pianorako obrak, piano eta orkestrarako bariazioak eta bestelako orkestrarako lan batzuk ere baditu. Ruiz de Gordoaren *Cuarteto para cuerda* obrak Gasteizeko Aurrezki Kutxa Munizipalak antolatutako IV. Konposizio Lehiaketan Lehen Saria irabazi zuen. Obra hori Donostian estreinatu zen Euskal Musika Berriaren II. Jardunaldietan, 1988ko ekainean.

## SAGASTI, Manuel

Nació en San Sebastián en 1789. Estudió en la localidad francesa de Burdeos, destacando por sus cualidades de violinista. Tras el incendio y destrucción de San Sebastián en 1813, compuso un *Nocturno y Misa de difuntos* interpretados en el primer aniversario de la catástrofe. Compuso igualmente la ópera *El infante de Zamora*, hoy perdida. Falleció en San Sebastián en 1818.

En el tomo VIII del Diccionario Geográfico Universal publicado en Barcelona en 1833 se le cita en la voz San Sebastián como “hombre tan aficionado a la música y con tan sobresalientes disposiciones para este arte, que habiéndole arrebatado la muerte en la temprana edad de 30 años, dejó admirables composiciones que harían honor a los más distinguidos maestros de esta facultad”.

Donostian jaio zen, 1789an. Burdeosen ikasi zuen, eta biolina jotzeko trebetasunagatik nabarmendu zen. 1813an, Donostia sutu eta suntsitu ostean, *Nocturno y Misa de difuntos* idatzi zuen, hondamendiaren lehen urtemugan interpretatu zena. Era berean, *El infante de Zamora* idatzi zuen, egun galdurik dagoena. Donostian hil zen, 1818an.

Bartzelonan 1833an kaleratu zen Diccionario Geográfico Universal-en aipatzen zen Donostiari zegokion sarreran: “hombre tan aficionado a la música y con tan sobresalientes disposiciones para este arte, que habiéndole arrebatado la muerte en la temprana edad de 30 años, dejó admirables composiciones que harían honor a los más distinguidos maestros de esta facultad”.

## SALABERRI, Sabin

Titulado superior en piano y composición, ha sido director de la Schola Cantorum del Seminario Diocesano de Vitoria y profesor en el Conservatorio de Música Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz, donde ocupó diversos cargos de dirección. Promovió la creación de la Escuela Municipal de Música Luis de Aramburu, de la que fue el primer director.

En 1968 fundó el Coro Araba de voces graves y en 2003 la Camerata Gasteiz.

Piano eta konposizioko goi mailako tituluduna da eta Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioko Schola Cantonum-eko zuzendaria izan zen. Gasteizko Jesús Guridi Musika Kontserbatorioko irakasle izan zen eta zuzendaritzako hainbat kargu ere bete zituen. Luis Aramburu Udal Musika Eskolaren sorrera bultzatu zuen, bertako lehen zuzendaria izan zelarik.

1968an ahots baxuen Araba Abesbatza sortu zuen, eta Camerata Gasteiz, 2003an.

Académico correspondiente de la de Bellas Artes de San Fernando, Hijo Predilecto de Aramaio, Celedón de Oro de Vitoria-Gasteiz y Premio Manuel Lekuona 2007 de la Sociedad de Estudios Vascos, es, además, miembro del Consejo Artístico de la Orquesta Sinfónica de Euskadi.

Ha colaborado en prensa y radio y es autor de diversos libros y trabajos de investigación.

Como compositor, ha sido premiado en varios concursos y es autor de una variada obra musical, que comprende canciones para voz e instrumentos, piezas corales y composiciones para piano, órgano, orquesta y diversas formaciones instrumentales.

San Fernandoko Arte Ederren Akademiko kide eta Aramaioko seme kuttuna izan zen, eta Gasteizko Urrezko Zeledon eta Eusko Ikaskuntza Elkarteko Manuel Lekuona 2007 Saria jaso zituen. Horretaz gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko Kontseilu Artistikoko kide da. Prentsa eta irratiko kolaboratzaile, eta hainbat liburu eta ikerketa lanen autore ere bada.

Konpositore moduan hainbat lehiaketatan saritu izan dute, eta musika lan askoren autore da; ahots eta instrumentuetarako abestietatik hasita, korurako piezak eta piano, organo, orkestra eta hainbat formazio instrumentalentzako lanak egin izan ditu.

## SANTIAGO, Rodrigo A. de

Nace en Barakaldo (Bizkaia) en 1907. Cursó estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao con Rafael Navarro (violín), Jesús Guridi (armonía), José Sáinz Basabe (composición) y Armand Marsick (orquestación y dirección). A los dieciséis años obtuvo la plaza de violinista en la Orquesta Municipal de Bilbao. Fue director de las bandas de Mungia (Bizkaia) (1931-1936), Valencia de Don Juan (León) (1940-1947), A Coruña (1947-1967) y Madrid (1967-1977). En su fructífera época gallega de veinte años fue igualmente director de la Orquesta Municipal de A Coruña y de la Coral Polifónica El Eco. Desarrolló su labor docente en el Conservatorio Coruñés de Música y Declamación como subdirector y catedrático de armonía y composición.

Dejó numerosos escritos musicales, tanto sobre música gallega como sobre música vasca. Su labor creativa abarca dos zarzuelas, cuatro ballets, tres sinfonías y cuatro conciertos así como diversas obras sinfónico-corales, entre ellas un Réquiem.

Es autor asimismo de obras para banda, para diversos conjuntos instrumentales y para coro.

Fallece Rodrigo de Santiago en A Coruña en 1985.

Barakaldon (Bizkaia) jaio zen, 1907an. Musika ikasketak Bilboko Kontserbatorioan egin zituen, eta Rafael Navarro (biolina), Jesús Guridi (harmonia), José Sáinz Basabe (konposizioa) eta Armand Marsick (orkestrazioa eta zuzendaritza) izan zituen irakasle. Hamasei urte zituela, Bilboko Udal Orkestran biolinista plaza atera zuen. Herri hauetako banda zuzendari plazak ere atera zituen: Mungia (Bizkaia, 1931-1936), Valencia de Don Juan (León, 1940-1947), A Coruña (1947-1967) eta Madril (1967-1977). Galizian eman zuen garai oparoan zuzendari izan zen A Coruñako Udal Orkestran eta El Eco Koru Polifonikoan. Irakaslana A Coruñako Musika eta Deklamazio Kontserbatorioan burutu zuen, harmonia eta konposizioko zuzendariorde eta katedratiko gisa.

Musika idazki ugari idatzi zituen, maiz polemikoak, musika galegoaren zein euskal musikaren inguruan, batez ere zortzikoa gai hartuta

Bere kreazio lanak genero ugari hartzen ditu: bi zarzuela eta lau ballet, hiru sinfonia, lau kontzertu eta hainbat obra sinfoniko-koral, horien artean Requiem bat. Banda, talde instrumental eta korurako sortutako hainbat lanen egile ere bada.

A Coruñan hil zen, 1985ean.

## SARASOLA, Xabier

Titulado en violín y piano, ejerce como profesor de violín, armonía, canto coral y director de la orquesta de cuerda en la Escuela Municipal de Música de Beasain. Tras estudiar los cursos organizados por la Federación de Coros de Gipuzkoa, asiste a cursos de dirección coral con J.Busto, E.Ericson, A.Eby, C.Hogset, o G.Graden.

Ha sido director del coro Loinatz (1986-2012), cantor del Orfeón Donostiarra y del grupo vocal KEA. Es profesor de cursos y talleres de dirección coral y miembro de jurados, como el Gran Premio Europeo de Canto Coral (Gorizzia, 2004), Arezzo (2007) y Varna (2010). Ha sido presidente del jurado en el Certamen de Masas Corales de Tolosa. Obras suyas han sido obligatorias en el Certamen Coral de Tolosa y están siendo editadas por CM- Ediciones Musicales. Su música para coro de voces blancas ha sido grabada por el coro Vocalia, dirigido por Basilio Astúlez, con el propio autor al piano.

Biolin eta piano tituluduna, Beasaingo Udal Musika Eskolako biolin, harmonia, kantu koral eta harizko orkestrako irakasle da. Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak antolatutako ikastaroak egin ostean, J. Busto, E. Ericcson, A. Eby, C. Hogset, eta G. Graden maisuen Zuzendaritzako ikastaroetan parte hartu izan du. Loinaz abesbatzako zuzendari eta Donostiako Orfeoi-ko eta KEA ahots taldeko abeslari izan da.

Koruen zuzendaritzako ikastaroak eta tailerrak antolatzen ditu, eta hainbat lehiaketatako epaimahaietan parte hartu izan du: Europako Kantu Koraleko Sari Nagusia (Gorizzia, 2004), Arezzo (2007) eta Varna (2010). Tolosako Abesbatzen Lehiaketako epaimahaiko presidente izan zen. Bere obrak derrigorrezkoak izan dira Tolosako Abesbatzen Lehiaketan, eta CM-Ediciones Musicales argitaletxeak editatu ditu. Berak egindako ahots zurien korurako musika, Vocalia taldeak Basilio Astúlezen zuzendaritzapean grabatutako disko monografikoan jasota dago, pianoan autorea bera dagoela.

## SCHNEIDER, Maria

Compositora norteamericana nacida en 1960 en Windom, Minnesota. Graduada en 1983 por la Universidad de Minnesota, obtiene en 1985 el máster en música por la Eastman School of Music. Colaboró como asistente con Gil Evans.

En 1992 formó The Maria Schneider Jazz Orchestra, participando tanto con esta formación como con más de 80 grupos en destacados festivales de jazz de América, Europa y Asia. En 2013 recibió el doctorado honorífico por la Universidad de Minnesota. Es asimismo poseedora de varios premios Grammy por sus temas y grabaciones discográficas.

Ipar Amerikako musikagile hau Windom-en (Minnesota) jaio zen 1960an. 1983an Minnesotako Unibertsitatean graduatu zen eta 1985an Eastman School of Music-en masterra egin zuen. Gil Evans-en laguntzaile ere izan zen.

1992an berak sortu zuen The Maria Schneider Jazz Orchestrarekin ez ezik, beste laurogei talderekin ere Amerika, Europa eta Asiako hainbat jazz jaialditan parte hartu izan du. 2013an ohorezko doktoratua jaso zuen Minnesotako unibertsitatearen eskutik. Bere abestiek eta grabazioek Grammy sariak jaso dituzte.

## SOR Mª CONCEPCIÓN DEL STMO. SACRAMENTO

Profesa en la Orden de Hermanas Pobres de Santa Clara – Franciscanas Clarisas (O.S.C.) con el nombre religioso de Sor Mª Concepción del Santísimo Sacramento.

Es autora de la *Misa María Madre de la Iglesia*, para voz unisonal y coro, así como del Salmo 22 para la comunión a tres voces blancas, ambas obras editadas conjuntamente con el pie de imprenta de Estudios Grafor de Bilbao a mediados de los años 60.

Ahizpa Txiroen Santa Klara-Klarisa Frantziskotarren ordenan botoak egin zituen, Sor Mª Concepción del Santinsímo Sacaramento erlijio-izenarekin.

*María Madre de la Iglesia meza* idatzi zuen, ahots unisono eta abesbatzarako, eta Salmo 22 lana jaunartzerako 3 ahots zurirako. Bi obrak batera argitaratu ziren hirurogeigarren hamarkadaren erdialdean, Estudios Grafor inprenta oinarekin.

## TRONCOSO, Arantza

Nace en Ayegui, Navarra en 1974. Realiza estudios de piano, así como de composición en el Conservatorio Superior de Música Pablo Sarasate. Está igualmente en posesión de diversos cursos pedagógicos así como de un master en Musicoterapia. Ha sido profesionalmente docente de las escuelas municipales de música de Estella y Puente la Reina, así como del Conservatorio superior de música de Navarra Pablo Sarasate. Actualmente es profesora en la Escuela Municipal de Música Julián Romano, de Estella-Lizarra.

Es autora de varias piezas para banda de txistu, relacionadas algunas con las tradiciones de Zubieta e Ituren.

Aiegin, Nafarroa, jaio zen 1974an. Piano eta konposizio ikasketak Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan egin zituen. Zenbait pedagogia ikastaro egin ditu eta masterra du musikoterapian. Lizarra eta Gareseko musika eskoletako irakasle izan da, baita Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatoriokoa ere. Egun, Lizarrako Julián Romero Udal Musika Eskolako irakaslea da.

Txistu bandarako hainbat pieza egin ditu, eta zenbaitek Zubieta eta Iturengo tradizioekin dute lotura.

## UDAKIOLA, José Mª de

Se desconocen los lugares y las fechas de nacimiento y muerte de este autor. Es probable que se trate de un seudónimo utilizado por Feliciano Beobide, gran colaborador del proyecto de la Editorial de Música Vasca. Solamente se conoce una obra con esta autoría, de título *Sasikoipatsu = Jueves Gordo:* Pasacalle, editada en 1934 por la Editorial de Música Vasca de Tolosa, patrocinada por la Sociedad de Estudios Vascos, con el número 33 de la colección de música para banda.

Ez dago bere jaioterri, jaiotze data edo heriotza datari buruzko informaziorik. Editorial Música Vasca ekimenean sarritan parte hartzen zuen Feliciano Beobidek erabilitako ezizena izan daitekeela uste da. Autore honen obra bakarra dago, *Sasikoipatsu = Jueves Gordo* izenburua duena. Partitura hau Tolosako Editorial Música Vasca-k argitaratu zuen 1934an Sociedad de Estudios Vascos-en babesarekin, eta erakunde honen 33. zenbakian kaleratu zen bandarako musikako bilduman.

## UGALDE, Eva

Nace en San Sebastián en 1973. Cursa estudios de composición y dirección coral en Donostia con Gotzon Aulestia y Miguel Amantegi, respectivamente. Ha formado parte de los grupos de cámara Kanta Cantemus, dirigido por Javier Busto, y KUP, dirigido por Gabriel Baltés. Es profesora de Lenguaje Musical y Coro en el Conservatorio Francisco Escudero de Donostia. Forma habitualmente parte de jurados de concursos y competiciones. Es autora fundamentalmente de obras corales, estando en posesión de diversos premios de composición coral.

Donostian jaio zen 1973an. Konposizio eta koru zuzendaritza ikastaroak egin zituen Donostian, Gotzon Aulestia eta Miguel Amantegiren eskutik. Javier Bustok zuzendutako Kanta Cantemus ganbera taldeko kide izan da, eta baita Gabriel Baltések zuzendutako KUP taldekoa ere. Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko Musika Lengoaiako eta Koruko irakaslea da. Korurako obrak konposatu ditu batez ere, eta konposizio koraleko hainbat sari ditu.

## USANDIZAGA, Ramón

Nace en Donostia en 1889. Realiza estudios musicales así como los de abogacía. En 1941 fue nombrado director del Conservatorio Municipal de San Sebastián, donde ocupó las cátedras de Conjunto Instrumental, Estética e Historia de la Música, hasta el año 1963 en que se jubiló. Fundó la Orquesta del Conservatorio, que hizo su presentación en marzo de 1942, y desarrolló con ella una gran actividad musical. Fue distinguido por el Ayuntamiento de San Sebastián con la medalla de Plata de la Ciudad. Era también asesor y Miembro Honorario del Orfeón Donostiarra, asesor de la Asociación de Cultura Musical y Miembro Correspondiente de la Real Academia de Bellas Artes de San Fernando.

Como compositor dedicó gran parte de sus esfuerzos a revitalizar la obra de su hermano José Mª. En 1918 revisó y concluyó su ópera inacabada *La llama*. En 1929 convirtió la zarzuela *Las golondrinas* en ópera. Hombre de gran humildad, apenas promocionó su producción musical. Compuso música religiosa, obras corales y obras sinfónicas, como la *Rapsodia Vasca* o la *Suite sobre motivos que tuvieron su época*. Es autor asimismo de la zarzuela *La capa del diablo*. Falleció en Donostia en 1964.

1889an jaio zen Donostian. Musika eta zuzenbide ikasketak egin zituen. 1941ean Donostiako Udal Kontserbatorioko zuzendari izendatu zuten, eta bertan Instrumentu taldeko katedra, Estetikakoa eta Musikaren Historiakoa izan zituen, 1963an erretiratu zen arte. 1942ko martxoan aurkeztu zen Kontserbatorioko Orkestra sortu zuen, eta talde horrekin musika jardun oparoa izan zuen. Donostiako Udalak Herriaren Zilarrezko domina eman zion. Donostiako Orfeoiko aholkulari eta ohorezko kide ere bazen, baita Musika Kultura Elkarteko eta San Fernandoko Arte Ederren Errege Akademiako urgazle ere.

Musikagintzari dagokionean, José María anaiaren lana pizten ahalegin handia egin zuen. 1918an haren amaitu gabeko *La llama* opera bukatu zuen. 1929an *Las golondrinas* zarzuela opera bihurtu zuen. Umila izaki, ia ez zuen bere musika ekoizpena sustatu. Musika erlijiosoa, korurako lanak eta sinfonikoak egin zituen, esaterako *Rapsodia Vasca eta Suite sobre motivos que tuvieron su época*. *La capa del diablo zarzuela* ere egin zuen. 1964an hil zen Donostian.

## VALDÉS, Julio

Nace en Vitoria en 1877. Recibe sus primeras enseñanzas musicales con su tío Vicente Goicoechea en la localidad de Lekeitio, estudiando más tarde con el organista Joaquín Velasco y en Bilbao con José Sáinz Basabe. Tras realizar la carrera eclesiástica, fue nombrado en 1902 organista de Elorrio y en 1908 capellán del Monasterio de la Visitación de San Sebastián. En 1909 se traslada a Ratisbona para recibir enseñanzas, en la célebre Escuela Ceciliana, de M. Haller, F. Haberl, J. Renner y K. Weinmann. En 1912 realizó un viaje por Europa para conocer la situación de las escolanías. En 1918 sustituye a Jesús Guridi como organista en la parroquia de los Santos Juanes de Bilbao. En 1940 fue nombrado profesor de armonía del Seminario Diocesano de Vitoria, donde desarrolló una gran labor formativa.

Es autor de una importante obra musical religiosa, destacando trece misas, así como obras para órgano. Fallece en Vitoria el año 1958.

Gasteizen jaio zen 1877an. Lehen musika ikasketak Vicente Goicoechea bere osabaren eskutik jaso zituen, Lekeition. Aurrerago, Joaquín Velasco organistarekin ikasten jarraitu zuen eta, ondoren, José Sáinz Basaberekin, Bilbon. Eliz ikasketak amaituta, Elorrioko organista izendatu zuten 1902an, eta Donostiako Bisitazioko Monasterioko kapilau 1908an. 1909an Ratisbonaren joan zen eta bertako Zeziliar Eskolan honako maisuak izan izan zituen: M. Haller, F. Haberl, J. Renner eta K. Weinmann. 1902an Europa osoan zehar bidaia egin zuen eskolanien egoera ezagutzeko. 1918an Jesús Guridi ordezkatu zuen organista lanetan Bilboko Joan Santuaren Elizan. 1940an Gasteizko Elizbarrutiko Apaiztegian harmoniako irakasle izendatu zuten eta irakaskuntzan lan handia egin zuen bertan.

Erlijio musika asko sortu zuen, aipagarriak izanik idatzitako hamahiru meza eta organorako obrak ere. Gasteizen zendu zen 1958an.

## VARAS, Sara

Sara Varas López (1981) comenzó sus estudios musicales como pianista en Vitoria-Gasteiz, su ciudad natal. Durante su aprendizaje académico se especializa en la improvisación y el acompañamiento vocal e instrumental. Paralelamente, de la mano de Soledad Ruz, realiza una profunda incursión en el flamenco como pianista y arreglista.

En el año 2001 se traslada a Donostia-San Sebastián para cursar la licenciatura de composición en Musikene, siendo sus obras estrenadas en diferentes ciudades de España y Europa. Con posterioridad realiza el máster en musicología Música Hispana, impartido por la Universidad de Salamanca.

En la actualidad, además de desarrollar su labor pedagógica en el centro de aprendizaje musical Musikanaiz, trabaja en varios proyectos de formación musical para adultos, compaginando esta labor como directora del coro de la Asociación Lírica Sasibill.

Sara Varas Lópezek (1981) Gasteizen, bere jaioterrian, hasi zituen piano musika ikasketak. Inprobisazioan eta akonpainamenduan (ahots nahiz instrumentala) espezializatu zen. Paraleloki, Soledad Ruzen eskutik, flamenkoarekin saiakerak egin zituen pianista nahiz moldatzaile moduan.

2001ean Donostiara joan zen konposizio lizentziatura Musikenen hasteko, eta bere obra asko Espainia eta Europako hiri askotan estreinatu dituzte. Aurrerago Música Hispana masterra egin zuen, Salamancako Unibertsitatean.

Gaur egun, Musikanaiz zentroan musika irakasteaz gain, helduentzako hezkuntza ekimen ezberdinetan parte hartzen du, eta, Sasbibil Elkarte Lirikoa abesbatzako zuzendaria ere bada.

## ZUBELDIA, Emiliana

Nació en Salinas de Oro (Navarra) en 1888. Inició sus estudios musicales en Pamplona, continuándolos en Madrid y en la Schola Cantorum de París (composición con Vincent d'Indy y Désiré Pâque; piano con Blanche Selva). Desarrolló una gran actividad como concertista de piano, estableciéndose al final de los años 20 en París. En 1929 inició una gira por Sudamérica, el Caribe y Estados Unidos, presentándose como pianista, compositora y directora de orquesta. Por los años 30 se afincó en México, donde se interesó por las teorías musicales de Augusto Novaro. Emiliana se estableció en el Distrito Federal, para trabajar con Novaro. En 1947 la Universidad de Sonora la contrató para un año, haciéndose cargo del Coro Universitario, a la vez que se dedicó a la enseñanza de diversas materias musicales. En dicha Universidad fundó en 1954 la Academia de Música, en la que llevó a cabo una incansable labor docente hasta el final de su vida. Todos sus alumnos conservan un recuerdo reverencial de su personalidad y figura. Falleció en Hermosillo (Sonora) en 1987.

Es autora de obras para piano, coro, canto y piano, así como de un cuarteto de cuerda o la *Sinfonía elegíaca* para orquesta.

Salinas de Oro-n (Nafarroa) jaio zen 1888. urtean. Iruñean hasi zituen musika ikasketak eta ondoren Madrilen eta Pariseko Schola Cantorum-en eman zien jarraipena: konposizioa, Vincent d'Indy eta Désiré Pâquekin; pianoa, Blanche Serva-rekin. Lan handia egin zuen piano kontzertista gisa 20. hamarkadaren bukaeran. 1929an Hego Amerika, Karibe eta Estatu Batuetan zahar itzuli bati ekin zion piano-jotzaile, musikagile eta orkestra zuzendari gisa. 1930 inguruan Mexikon finkatu zen, eta Augusto Novaro-ren teoriak ikertu ondoren, haren jarraitzaile bihurtu zen. 1947an Sonorako Unibertsitateak urte beterako tratua egin zuen berarekin bertako koroa zuzentzeko eta zenbait gai musikal irakasteko. Azkenean, Sonoran geratzea erabaki zuen eta bertako Unibertsitatean Musikako Akademia sortu zuen. 1954an hil zen arte irakasle lanetan aritu zen, nekatu gabe. Izan zituen ikasle guztiek bere nortasun eta izaeraren begirunezko oroimena gordetzen dute. Hermosillo-n (Sonora) hil zen 1987. urtean.

Piano eta kororako 30 partitura baino gehiago idatzi zituen, bai eta soka laukote baterako eta orkestrarako *Sinfonía elegíaca* ere.



diseinua: sum+ marka komunikazioa – www.summas.net

ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

AMA Andra Mari Abesbatza

Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

Errenteriako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEA PATROCINA

kutxa
FUNDAZIOA

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

SUPER AMARA

errenteriamusikal

musikene
Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia
Centro superior de música del País Vasco

Musikagileak